



**2023KO URRIAREN 23KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita hiruko urriaren 23an, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

Bilkurari hasiera eman aurretik, Tokiko Gobernu Batzordeak IV. puntua, *Lazkaoko Udalaren ondarezko aseguruaren eta aseguru pertsonalen kontratazioa: bigarren artxiboaren irekieraren aurrean, kontratazio mahaiaren proposamena* deritzona, ez jorratzea erabaki du dokumentazioa osatu gabe zegoelako. Hurrengo batzorde batean jorratzea erabaki da.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu da 2023ko urriaren 9an egindako ohiko bilkurako akta onartu da, idazketa-akats bat zuzendu ondoren.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren, Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira.

Fakturak aztertu ondoren, 2023ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 78 zenbakidun fakturen zerrenda, HOGEITA SEI MILA BEDERATZIEHUN ETA BERROGEITA ZAZPI euro ETA HIRUROGEITA HEMERETZI zentimokoa (26.947,79 €), bere espedientean dagoena, onartzea erabaki da.

III.- LAZKAOKO DATUM ALTIMETRIKOA ALDATZEKO ETA OINARRIZKO KARTOGRAFIA EGUNERATU ETA ERAIKITZEKO ZERBITZUAREN ESLEIPENA.-

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2023ko abuztuaren 1ean hartutako akordio bidez, Lazkaoko datum altimetrikoa aldatzeko eta oinarrizko kartografia eguneratu eta eraikitzeko zerbitzua, prozedura ireki sinplifikatu bitartez eta lehiaketa bidez esleitzeko Berezko Klausula Administrazioen eta Preskripzio Teknikoen pleguak eta kontratazio espedientea onartu eta lehiaketarako deialdia egitea erabaki zuen.



Lizitazio deialdiaren iragarkia kontratzailearen proflean 2023ko abuztuaren 9an jarri zen.

Eskaintzak aurkezteko epean, proposamen bakarra aurkeztu zuten:

1.- GEOGRAMA, S.L.

GEOGRAMA, S.L.-k aurkeztutako proposamena onartua izan zen.

Balio-iritzi baten arabera baloratu beharreko dokumentazioa jasotzen duen 1. artxibo elektronikoa 2023ko irailaren 25ean, eguerdiko hamabiak eta hamarretan ireki zen.

1. artxibo elektronikoa jasotzen duen dokumentazioaren azterketa egin ondoren honako puntuak eman zaizkio proposamenari:

ENPRESAK	Datum altimetrikoa aldatzea (15 puntu)	Jasotze topografikoak (15 puntu)	Oinarrizko kartografiaren eraikuntza (15 puntu)	GUZTIRA (45 puntu)
GEOGRAMA S.L.	15	15	15	45

Automatikoki baloratu daitezkeen irizpideen dokumentazioa jasotzen duen 2. artxibo elektronikoa berriz, 2023ko urriaren 2an, eguerdiko hamabietan ireki zen.

2. artxibo elektronikoa jasotzen duen dokumentazioaren azterketa egin ondoren honako puntuak eman zaizkio proposamenari:

ENPRESAK	Prezioa		Epea murriztea		Kalitatea kudeatzeko sistema Puntuak (2 puntu)	GUZTIRA (55 puntu)
	Zenbatekoa (*)	Puntuak (49 puntu)	Asteak	Puntuak (4 puntu)		
GEOGRAMA S.L.	62.200 €	49	4	4	2	55

Beraz aurkeztutako enpresaren puntuazioa guztira hau izan da:

ENPRESAK	Balio judizio baten arabekoak	Irizpide automatikoen arabekoak	GUZTIRA
	Puntuak	Puntuak	Puntuak
GEOGRAMA S.L.	45	55	100



LAZKAOKO
UDALA

Ondorioz, eta lehen sailkatua Geograma, S.L. izanik, kaudimen baldintzak betetzen dituela eta lizitzaileen erregistroan inskribatuta dagoela baieztatu ondoren, esleipena egin ahal izateko fidantza eratu zezala eskatu zitzaion.

Geograma S.L.-k fidantza eratu du.

Hau honela, kontratazio mahaiak GEOGRAMA S.L.-ren aldeko esleipen proposamena egin du.

Hau guztia honela, gaia bozketan jarri da eta Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, honako akordioak hartu ditu:

LEHENA.- Lazkaoko datum altimetrikoa aldatzeko eta oinarrizko kartografia eguneratu eta eraikitzeko zerbitzuaren esleipena GEOGRAMA S.L. enpresaren alde egitea. Esleipenaren prezioa, HIRUROGEITA BI MILA ETA BERREHUN euro (62.200,00 €) gehi BEZari dagokion HAMAHIRU MILA ETA HIRUROGEITA BI eurokoa (13.062,00 €).

BIGARRENA.- Esleipenaren akordioa, proposamena aurkeztu duen enpresari jakinaraztea eta kontratatzailearen profilean argitaratzea.

IV.- GIPUZKOAKO EROSKETA ZENTRALAREN BIDEZKO KONTRATAZIOA, BEROKUNTZA INSTALAZIOEN MANTENU ZERBITZUAREN ESLEIPENA.-

Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, 40.5.b) artikuluan emandako eskumenekin bat etorritik, Gobernantzako foru diputatuak 2023ko urriaren 9ko foru aginduaren bidez, EULEN S.A., I.F.Z. A28517308, enpresarekin "Foru Kontratazioen Zentralaren bidez eraikuntzetako instalazio termikoen mantentze zerbitzua kontratatzeko esparru akordioa" burutzea ebatzi zuen.

Lazkaoko Udalari dagokio, Foru Kontratazio Zentralak tramitatutako espedienteari atxikia dagoen erakundea den aldetik, eta hornidura interesatzen zaion neurrian, 2011ko otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuaren 6. artikulua araberak, esparru akordiotik eratorritako kontratua esleitzea, formalizatzea eta gastua baimentzea.

Behin esparru akordioa izenpetu ondoren, zerbitzuburuak 2023ko urriaren 17an emandako txostenaren arabera, aipatu zerbitzuaren beharra dela eta, eraikuntzetako instalazio termikoen mantentze zerbitzuaren kontratua, Esparru Akordioa burutzea erabaki den enpresa berari esleitzea eta hala formalizatzea proposatu du.

Administrazio honek kontratatzea beharko duen zerbitzua zenbatetsiz, gutxi gorabehera, urteko 7.169,80 euroko gastua ateratzen da, BEZik gabe.

Hori dela eta, 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 221. artikuluari jarraituz, bidezkoa da eratorritako EULEN S.A., I.F.Z. A28517308, enpresari esleitzea, izenpetutako Esparru Akordioan ezarritako baldintzetan.

Ondorioz, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako akordioak hartu ditu:



LAZKAOKO
UDALA

LEHENENGO.- EULEN, S.A., I.F.Z. A28517308, enpresari esleitzea, "Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez eraikuntzetako instalazio termikoen mantentze zerbitzua kontratatze-ko esparru akordiotik" eratorritako kontratua, esparru akordioa burutzea erabaki den baldintzetan.

BIGARREN.- EULEN, S.A., I.F.Z. A28517308, enpresaren alde baimentzea eta xedatzea, aurtengo ekitaldiari dagokion 1.630,21 € gehi BEZ, euroko gastua, udal aurrekontuan, programa ezberdinetan, eraikuntzetako instalazio termikoen mantentze gastua jasotzen duten 1 227.11 kontusailen kargura.

V.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 135 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzua handitzea 2023ko urriaren 10etik aurrera, astean 10 orduetik 22 ordura, onuradunen osasun egoera okertu delako. Onuradunen ekarpena % 2koa izango da.
- 14-11-09 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzua handitzea 2023ko urriaren 9tik aurrera, egunean 3 orduetik 4 ordura, onuradunen osasun egoera okertu delako. Onuradunen ekarpena % 2koa izango da.
- 23-11-11 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzuan alta ematea 2023ko urriaren 2tik aurrera, astean 3 egunetarako eta egunean ordu terdirako. Onuradunen ekarpena % 100ekoa izango da.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 22-01-015 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 86,95 €-ko dirulaguntza ematea irailetik abendura eta alokairu gastuetarako hilean 235 €-ko dirulaguntza ematea irailetik abendura. Eman daitekeenaren % 94 da.
- 23-01-002 zenbakidun esped.: alokairuaren eta etxebizitzaren mantentze gastuetarako laguntzak bajaran ematea apiriletik, bizikidetzaren unitatean aldaketak egon direlako.
- 23-01-010 zenbakidun esped.: lehen mailako premietarako laguntzari bajaran ematea urritik diru sarreretan aldaketak egon direlako.
- 23-01-016 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 150 €-ko dirulaguntza ematea urritik abendura. Eman daitekeenaren % 100 da.
- 23-01-017 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 75,00 €-ko dirulaguntza ematea urritik abendura eta alokairu gastuetarako hilean 250,00 €-ko dirulaguntza ematea urritik abendura. Eman daitekeenaren % 100 da.



VI.- KULTURA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Kultura Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

- Jundajo Txaranga taldeari.-

Talde hau eta Udalaren artean izenpetu zen hitzarmenean, talde honentzako egitura garatzeko eta bere ekintzak burutzeko, 5.000 €-ko dirulaguntza ematea aurreikusi zen.

2023ko otsailaren 6ko Tokiko Gobernu Batzordean, hitzartutako kopuruaren %60 ordaintzea onartu zen.

Orain, ordaintzeko falta den % 40 ordaintzea onartu da, 2.000 € hain zuzen ere.

Diru laguntza 2023ko aurrekontuaren 481.02.334.00 partidatik ordainduko da.

VII.- EUSKARA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

- Euskara ikasten ari direnei.-

2023/2024 ikasturtean euskara ikasten bukatu duten ikasleei dirulaguntzaren ordainketa egitea baldintzak bete dituztelako. Ikasle bakarra izan da eta emango zaion kopurua 313,00 €-koa da.

Ordainketa partida honetatik egingo da: 2023ko aurrekontuaren 1 480.01.335.00 partidatik.

VIII.- KIROL ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Kirol eta gazteriako zinegotziak egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honakoa erabaki du: aurrekontuetan kirol talde desberdinek urteko ohiko funtzionamendu eta egitasmoak diruz laguntzeko izendatuta dauden dirulaguntzetatik, bigarren zatia, hau da, % 40, ematea.

Ondorengo da onartu diren dirulaguntzen zerrenda:

Kirol elkarteak	Bigarren ordainketa (%40)
Lazkao Kirol Elkartea	5.400 €
Goierrri Gorri Kirol Kluba	1.800 €
Lazkao Antzar Pilota Kirol Elkartea	800 €
Antzar Korrikalariak Kirol Kluba	500 €
Amalur Mendi Elkartea	400 €
Txindoki Atletismo Taldea	320 €

Ordizia Igeriketa Taldea	480 €
ORLOIJ Txirrindularitza Bultzatuz Elkartea	320 €

Bestalde, kirol ekintzen antolakuntzarako ondorengo laguntzak ematea ere onartu du, aho batez, Tokiko Gobernu Batzarrak:

Kirol elkartea	Ekintza	Ordainketa
Antzar korrikalariak	Eskolaumeen triatloia	694 €
Antzar korrikalariak	Eskolaumeen mendi duatloia	497,95 €
Antzar korrikalariak	San Silbestre lasterketa (1. zatia)	2.280 €
Amalur Mendi Elkartea	IV. mendi astea	535 €

IX. LANDA EREMUA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Landa Eremuko batzordetik baserritar ekoizleei diru-laguntzak emateko egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako hau erabaki du:

- Lazkaoko baserritar ekoizleen sustapenerako Lazkaoko Udalak 2023ko apirilean martxan jarritako erosketa bonuen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat baserritarrek jasotako bonuak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien baserritarrei bosgarren ordainketa egitea, ondorengo xehetasunaren arabera:

Baserritarra	Zenbatekoa
Aitor Iztueta Barandiaran	365 €
GUZTIRA	365 €

Ordainketa aurrekontuaren 1 471.02.433.01 partidatik egingo da.

X.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ez da galdera edota erregurik egon.

XI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bostak eta hogeita bost direnean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.

